

RESET

AITZIBER ETXEBERRIA



n a r r a t i b a •

re en

RESET

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko maiatzean

Azaleko irudia:

Ivan landa

Maketazioa:

A. Beltza

© Aitziber Etxeberria

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-9109-981-9

L.G.: D 494-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Aitziber Etxeberria

RESET



*Araitz, Iker, Martin, Xabier eta amari,
etxekoei,
istorio berriak sortzeko ilusioa bizirik mantentzen laguntzeagatik.
Aitari:
lehen hitzetik, azken punturaino, bidelagun izan zaitut.*

Oh, the wind, the wind is blowing
Through the graves the wind is blowing
Freedom soon will come
Then we'll come from the shadows

Leonard Cohen, *The Partisan*

LEHENENGO ATALA

1

Haizea egurrezko leiho zaharren artetik irristari dabil, jostari; ez du miatu gabeko zirrikiturik uzten. Jolasaz aspertu denean, egur zati maiztu haien lantuari muzin eginaz, atzera begiratu gabe, bere bidean jarraitu du txistulari.

Hego haize pinpirinak atzean utzi duen eraikina ez da oso handia, hiru pisu baino ez. Mozkote bezain sendoa da. Hezurmamitzen duten harri, egur eta teilek desagertu den garai baten lekuko arrotz bilakatzen dute. Behinola izandako doto-rezia aspaldi galdua du, paretetatik altxatu den pintura zuri zikinduak argi uzten duenez.

Inguruan ezereza da nagusi. Desertua baino bizi gutxiago duen eremu agorra; tresna elektrikoen hilerri erraldoi bat, orain ez denbora asko arte erabilera zeukatenak, denbora mugatu batez etorkizuna izan ziren elementu boteretsuen behin-behineko amaiera. Transformatu edo izatez aldatu aurreko azken pausoa. Energia ez baita ez sortzen ez galtzen ere, transformatu egiten baita. Eta materia?

Galdera inozoak okerreko lekuan. Horrexegatik bukatu dut hemen, hilerri batean, herria osatzeko gizabanakoak beharrezkoak baitira eta momentuz, ahalegin, diru eta baliabide asko xahutu badira ere, ez baita lortu inteligentzia artifizialaren gizatasunik.

Kosta egin zait autoa geratu egin dela konturatzea, auto elektrikoek eragindako kutsadura akustiko maila benetan baxua baita. Erabateko isiltasun eta bakardadean egin dut bidaia. Ahaztua nuen goi mailako teknologiaren zehaztasun eta eraginkortasuna. Baita autonomia zirraragarria ere.

Lekualdatzea akatsik eta ezustekorik gabe burutu da: segurtasun goreneko espetxe batetik atera eta desertu baten erdian dagoen Lan Eremu Espezializatu batera eraman naute. Inguruan ez da guardiarik, ezta zaintzailerik ere. Ezker orkatilan, astragalo hezuraren gainaldean dudan txipak une oro eta nonahi igortzen du bere seinalea. Urrutiko aginte bidez kontrolaturiko auto honek dituen segurtasun neurriak ekiditea lortuko banu ere, poliziak lokalizaturik edukiko nindukeen. Ez dut ihesbiderik eta badakit.

Espetxe zigorraren epaiarekin batera etorri zen erietxeko bisita, bisturi xume batez egindako ebaki txikia eta txiparen txertaketa. Ohatilan eseri orduko, zutik nintzen berriz ere poliziaren atzetik. Erizainak antiseptiko moduan erabilitako iodoak galtzetan utzitako orbana garbitzeko, xaboiak gain, lixiba pixka bat ere beharko nuela pentsatu nuen; une garratz surrealista hartatik babesteko garunak inprobisaturiko pentsamendu inozo bat baino ez. Ziegako atea itxi eta neure buruarekin bakarrik geratu nintzen. Txip hura zen handik aurrera izango nuen lagun min bakarra. Bizi baldintza berriak zenbat eta

lehenago barneratu eta onartu, orduan eta bizirauteko aukera gehiago izango nituen.

Gidaririk gabeko autotik jaitsi eta hiru pisuko eraikin zaharren aurrean planto egin dut. Zaharkinen biltegia dio eguzkiak kolorgeturiko kartel txiki batek. Neu ere inongo interesik eta erabilgarritasunik gabeko elementu bilakatu ote naizen galdetu diot neure buruari.

Eraikinaren sarrerara iritsi naiz; bizkor igo ditut eskailerak eta arduradun baten zain geratu naiz. Euliak izan dira, ordea, nire bidera irten diren bakarrak. Bero sapa itsaskorrak izerditan jarrrarazi nau denbora gutxian eta usainak erakarririk edo, euli madarikatu haiek lepondoan jirabiraka sumatu ditut berehalakoan. Tupustean, noraezean, ezker-eskuin banaturiko esku zapladek ez dute, itxuraz, disuasio efekturik izan eta intsektu txiki haiek, isekari, bere jolas gogaikarriarekin jarraitu dute nire amorraziorako.

Itxarroteaz aspertu naiz, itzala eta freskura nahi ditut. Eraikinaren beirazko aterantz hurbildu naiz eta nire presentzia hauteman orduko, atea albo batera baztertu da irristari. Bitan pentsatu gabe egin dut barrura. Dardara txiki bat izan da atearen irristaketa berriaren seinale bakarra. Soinu hermetiko batek eta berehalakoan sentitu dudan freskurak, errealtate berri bati ez ezik, ezagutzen ez dudan leku eta jende berriei aurre egin beharko diedala gogorarazi didate eta, une batez, ikara sentitu dut.

Orain arteko espetxean ez bezala, eraikin honetan ez dut hezur-mamizko arduradunik topatu nire zain. Horren ordeztan, pantaila handi batek eman dit ongietorria. Irudi batek pantailaren aurrean non kokatu behar den zehatz adierazten du. Bertan jarri orduko, pantaila aktibatu eta guardia baten holograma

azaldu da. Zurrun jarri naiz. Han bertan ez egoteak ez baitu esan nahi aginterik ez duenik.

—Ongi etorri Zaharkinen Biltegira. Lan Eremu hone-tako langile espezializatutzat identifikatuko zaituen ausazko hizki eta zenbaki konbinaketa da ZAK21. Identifikazio sistema honen helburu nagusia da langile bakoitza bere lanean buru-belarri kontzentraturik egotea. Baita, langileen kontzentrazio galera eragin dezakeen edozein kanpo estimulu ezabatzea ere.

Benetako helburua zein den jakin nahi nuke, hologramak, ordea, ez du sistemarentzat baliagarria ez den azalpen gehigarri-rik emango.

—Eraikin honetan lau langileentzako lekua dago eta lau-garren postua beteko duzu. Zure lan berrian gustura arituko za-rela espero dugu.

Ahots monokorde eta patxadatsuak etenune txiki bat egin eta nire erantzunaren zain geratu da. Buruaz baiezkotzko keinu arin bat egitea lortu dut itxaronaldia gehiegi luzatu eta guardia er-negarazi baino lehen. Balekoa izan da, antza. Eskumuturreko digitala ukitu eta albo batera mugitu da guardia. Haren atzean dagoen pantaila batean, langileen egunerokotasunerako baliagarria den informazio azaldu da.

—Hemen duzu otorduen ordutegia. Ezinbestekoa da garaiz iristea. Ordularirik ez duzuenek, seinale akustikoak erabiltzen di-tugu abisatzeko. Ikusiko duzun bezala, tonu ezberdinak ditugu eginbehar bakoitzerako.

Haserrea sentitu dut azken hitz hauek entzutean. Umilia-garria iruditu baitzait gure nortasuna ukatzeaz gain, abereak he-zitzeko aplikatzen den metodo berbera erabiltzea gurekin ko-muniatzeko.

—Zalantzarik?

Nahiz eta ezinezkoa izan, guardiaren holograma gerturatzzen ari dela iruditu zait.

—Ez —erantzun dut ahal bezain azkar. Ez dut arazorik nahi lehen egunean.

—Erabili beharreko arropa gelan aurkituko duzu. Duxatu ondoren, egunero aldatuko duzu arropa zikina. Elkarbitzitarako ezinbestekoa da oinarrizko higie-ne arauak betetzea ere.

Eten txiki bat egin du. Nire aurpegian erreakziorik ikusi ez duenez, aurrera jarraitu du.

—Eraikinaren mapa honetan ikus dezakezunez, lehen solairuan harrera, sukaldea, jangela, aisialdi-gela eta tailerra daude. Gelak lehen solairuan kokatzen dira: pasilloaren erdialdean, eskuinean dagoena da zurea.

Guardia hasierako posiziora itzuli da. Aurrez aurre dut orain. Nire begien bila ari da. Hasieran ez diot nirekin bat egiteko aukerarik eman, deseroso sentiarazi bainau haren begirasun gordinak. Pantaila bateko holograma bati gorantz begira egon beharrak, nire ahulezia azpimarratzeko baino ez du balio.

—Esanekoa bazara, ez duzu arazorik izango aro berri honetan. Ez hori bakarrik, espetxealdiko hurrengo eta azken arora erraz igaroko zara. Gainerakoan —kopeta nabarmen zimurtu du datozen hitzak ahoskatu baino lehen—, atzera egin eta atera berri zaren zulora itzuliko zara.

Bihotzetik hatzetaraino zabaldu den zirrara sakon bat sentitu dut hitz gordin hauek entzutean.

Lau urte pasatxo eman ditut segurtasun handiko «M» eremuko kartzelan, mila laurehun eta hirurogeita hamabost egun

eta gau. Ia erabateko bakardadean, neure buruarekin borrokan pasatu ditudan milaka ordu. Lan Eremu Espezializatu batera joango nintzela azaldu zidatenean, asaldatu egin nintzen. Kosta egin zitzaidan informazio hura prozesatzea. Lan Eremu Espezializatua. Zer esan nahi zuen horrek? Zergatik egin behar nuen lan? Eta non? Preso nengoen, epaileak argi utzi zidan hamar urteko espetxe zigorra bete beharko nuela eta oraindik ez nuen erdia ere bete. Kartzelako psikiatrarekin hamabostean behin izaten nuen saioan eman zidaten aldaketaren berri. Zuriri, psikiatrari, zuzenean galdetu nion zer zen leku hura. Ez nuen erantzun garbirik lortu. Ez kezkatzeko erantzun zidan, dena azalduko zitzaidala.

Zurik adierazi zidan espetxealdian aro bat bete eta gainditu nuela. Haren hitzetan, lau urte haiek neure buruarekin bakean sentitzeko balio izan zuten. Iraganean egindako akatsez hausnartu, akats hauetatik eratorritako ondorioak onartu eta aurrera jarraitzeko indarra eta kemena bilatzeko eta topatzeko beharrezko etenaldia izan omen zen.

Beste aro bati heltzeko garaia iritsi omen zitzaidan. Hori ez nuen, noski, egun batetik bestera lortuko, ezta bakarrik ere. Erakundeen laguntza ezinbestekoa izango nuen. Laguntza eta orientazioa izango nuen, bai, baina bidea egiteko adorea eta gogoia neuk jarri beharko nuen.

—Harrera utzi eta pasilloari jarraitzea besterik ez duzu. Amaierara iristean, ezkerretara egin eta hantxe aurkituko duzu jangela. Zure lankideak jada han dira.

Holograma itzaltzearekin batera, bakarrik geratu naiz. Automatzen moduan, esandakoa egin eta ezustekorik gabe topatut jangela.

Etsipenez begiratu diot aurrean dudan azpilari. Goraino urez beterik dagoen edalontzia, katilu zuri bat eta koilara bat ditut hurrenez hurren. Natura babesteko legeak agintzen duenari jarraiki, plastiko birziklatuz eginak den-denak. Bazkaria osatzen dute bost bolatxok, usainik eta zaporerik gabeko marroi kolorekoak, ahi lehor bezain lodi batek eta izenik ez dakidan alga mordoxka tontor bik. Azkenburukoa arrosa koloreko gelatina bat da, azpilaren ezker izkinako sargune batean. Benetan erakargarria.

Lan-jantzi berde berbera daramaten beste hiru pertsona daude jangela txikian, bakoitza banakako mahai batean eserita, neu bezala. Ez dirudi inorekin harremanik izateko gogo handiegirik dutenik, ezta beren artean asko hitz egiten dutenik ere. Leku hontara iritsi naizenetik kostatzen da aire egokituaren makinak egiten duen zarata ez den beste soinurik entzutea.

Plastikozko koilara eskuan hartu eta katilu zurian sartu dut. Begirada janarian iltzatu eta lau urtez probatu ditudan arauak betetzen hasi naiz. Espetxeratu nindutenetik ez dut ez aiztorik, ez sardexkarik erabili, jaten dudan guztia koilaraz edo eskuaz aharatzen dut. Nire segurtasunarengatik, hori esan zidan espetxeko guardiak. Nork bere burua zauritzeko erabil zitekeen edozer debekaturik zegoela adierazi zidan gordin. Ezagutzen ditudan arauak jarraitzeak lasaitasuna eman dit, ezezagunaren aurrean sentitzen dudan asalduraren aurrean. Beste hiru bazkal-tiarrei begiratu diet zeharka. Haiek ere koilara dute eskuan dantzari. Zer dira bolatxo hauek? Lehena irentsi dut. Ez dago gaizki, gauza nazkagarriagoak probatu ditut.

Kanpora lanera irteteko prest nago. Beste hiru langileekin sarreran bildu eta binaka jarri gara. Ez dut bikotekidea aukeratu beharrik izan, lehen osatu den bikotea hologramaren parean jarri da, hirugarren langilea, berriz, haien atzean. Haren ondoan jarri naiz erabateko isiltasunean. Kanpora irtengo naizen lehen aldia da, eta apur bat urduri nago. Ez dakit nola moldatuko naizen lan berrian.

Gainerako lankideek burua altxatu eta hologramari begiratu diotenean, neu ere erne jarri naiz. Irteera protokoloa ongi betetzea garrantzitsua dela badakit, laurok prest egon arte guardiak ez baitu kanporatzeko agindurik emango. Bezperan, TEN01ek, eraikin honetako preso laguntzaileak, bazkal ostean izan genuen hizketaldian azaldu zidan eguneroko errutina. Goizeko bostetan txirrin ozen batek langile guztiok esnarazten gaitu. Ordu laurden batean denok sukaldean egon behar dugu. Gosaldu eta 5:45erako eraikinaren sarrera nagusian biltzen gara. Guardiaren hologramak langile bakoitza aztertu eta dena behar bezala dagoela baieztatu ondoren, gutxienez bi pertsoenez osaturiko taldetan irteten gara kanpora. Bakarrik irtetea debekaturik dago langileen segurtasuna bermatze aldera. Eguerdiko hamabietan itzultzen gara eraikinera. Bazkaldu, atsedeen txiki bat hartu, eta, arratsaldean, eraikin barruan, beste

hiru orduz aritzen gara lanean. Afalordura arte atsedenaldua dugu. Afaldu ondoren, bakoitza geure gelara itzultzen gara, bakarrik. Gaueko bederatzietan argi guztiak itzaltzen dira; lotarako ordua da.

Aldamenean dudan bikotekide beltzaranak ezpainak mugitu ditu, zerbait xuxurlatu dit, baina ez dut ezer ulertu.

ZIP65 behera begira dago, burua altxatzeko ere nekatuegia dagoela dirudi. Iharra eta garaia da, hezur eta azal eginda dago. Zaila da haren adina jakitea, nekeak eragindakako zimurrak aurpegiaren zati handi batez nagusitu baitira. Arauei jarraiki, ilekizkur luzea mototsa batean bildurik darama. Begira geratu natzaionean, keinu nekezaz mototsari bi eskuekin heldu, sorbalda gainetik aurrealdera pasatu, txirikordatu, trebetasunez buru gainean kiribildu eta bisera jantzi du. Aurre aldera begira jarri da gorputza ahal duen gehiena tentetuz. Kosta egin zait mezua ulertzea. Pare bat minutu behar izan ditut eskuan dobla-dobla eginda daramadan bisera janztea ahaztu zaidala konturatzeko. Burua estali orduko, guardiaren holograma mugimenduan jarri da eta banaka-banaka aztertu gaitu. Azterketa zorrotz laburra bukatu bezain azkar, sarrerako atea ireki da. Laurok martxan jarri gara pauso motelez.

Egunsentiaren lehen printzek gure masailak ferekatu dituzte amultsuki. Ez dirudi besteek laztan eme hauen goxotasunik gogoko dutenik, denek, burumakur, oinak arrastaka, etsipenean murgildurik jarraitu baitiote beren bideari. Nik, haatik, burua altxatu dut laztan gehiagoren egarri. Segurtasun handiko «M» eremuko modulu hartan ez dut ez egunsentirik ikusteko ez dastatzeko aukerarik izan, eta, momentu honetantxe arte, ez naiz jabetu galdu dudan guztiaz. Bizitzaren altxorrik ederrenak,

denbora labur batez goza daitezkeen une iraungikor hauskorak baino ez dira. Bihotzik makalena ere adoretzeko gaitasuna duten txinpartak.

Gainerako langile espezializatuek bezala, eskumuturrean estu-estu loturik daramadan uztai itxurako kontrolagailu elektriko txikia izan da besoa sentitu dudana ziztada sarkorraren eragilea. Laukotea unitate bat dela eta kanpoan dagoen bitartean unitatea osatzen duen elementu bakoitzak besteen osagarri izan behar duela gogorarazi dit modu sinple eta eraginkorrean. Berriro ere laukotearen martxari lotu naitzaio. Fase berri hartan biziraungo badut, argi geratu zait komeni zaidala lehenbailehen barneratzea nire mugimendu bakoitza, pentsamendu bakoitza kasik, kontrolpean duen zelatari bat inguruan dudala.

Metro gutxi batzuk egin ditugunean, aurreko bikotea seko geratu da ezerezaren aurrean, eta halaxe egin du nire bikoteki-deak ere. Inongo zaratarik atera gabe, luze baino lehen, gurdi karratu metaliko huts bat atoian daraman lau plazako ibilgailu sinple bat azaldu da: lau eserleku, segurtasun uhalak, eta ertz bakoitzean bermaturiko lau habe meharretan loturik dagoen eguzkitik babesteko telazko estalpe bat. Gure aurrean geratu eta laurak bertara igo garenean, berriz ere martxan jarri da abiadura geldoz. Urrutian ikusten diren txatar mendietara abiatu gara ezinbesteko isiltasunean.

Nostalgia eta mina sentitu dut zabortegira begiratzean. Tresna hondatu haiek nire bizitzaren antza handiegia dute. Punta-puntako teknologiaren diseinu aurreratuenak, erabilpenik gabeko pieza multzo bilakatu dira. Ahaztuak izan dira. Ni bezala. Erabat isolaturik nago. Ez dakit ezer senitarteko, lagun edo lankideez. Hasieran, kartzelako guardien kontua izan zela pentsatu nuen: epai-leak ezarritako zigorra nahikoa iruditu ez eta mendeku hartu zutela. Orain ez nago hain ziur. Agian, egin nuenaren aurrean sentitzen duten mespretxua erakusteko modua baino ez da izan.

Txatarra mendietara gerturatzen ari garen neurrian egurtsa aldatzen ari dela iruditu zait. Nire lankideak zelatatu ditut diskrezioz, haien aurpegietan harridura edo nazka edo antzerako seinalerik topatu nahian. Ez dut inolako erreakziorik nabarmendu, ordea, ez beren begiradan, ez jarreran ere. Eguneroko errutinan erabat murgildurik dagoenaren portaera mekanikoarekin behatzen da nire urduritasuna. Ni ere leku arrotz hartara laster ohituko naizela pentsatu eta ingurua miazten jarraitu dut.

Ikusi dudanak nahi baino gehiago aztoratu nau. Lau urte luze eman ditut aparatu elektrikorik eduki edo ukitu gabe. Erabateko isolamendu teknologikoan egon naiz, eta, orain, eskua luzatu ahala, milaka eta milaka aparatu uki ditzaket. Irrika

kontrolaezin bat sentitu dut hasieran. Auto ziztrin hura salto batez atzean utzi eta tranpolinetik igerileku batera nola, inguruan dudan edozein zabor muino haietako batera gogo biziz jauzi egiteko nahi bizia sentitu dut. Lau urteko baraualdiaren ondoren, nire grinak nahikoa menderaturik izango nituela uste banuen ere, erabat oker nagoela konprobatu ahal izan dut. Erraietatik sorturiko nahi geraezin baten bulkadaren mende nagoela konturatu naiz, eta baita, agian, desio beltz hura geldiarazteko, borrodateaz gain, eskumuturrean loturik dudan kontrolagailu madarikatu haren ziztada ere beharko dudala.

Begiak itxi ditut, errealtateari uko eginaz, barruan irakiten sentitzen dudan ezinegona ekidin nahian. Gorputza, eta batez ere, burua engainatzea ez da hain erraza, ordea, eta berehalakoan igarri dut gorputza alde zeharkatzen didan dardarizo xumea. Haren eskutik etorri da lehen flasha ere: sotoa, erreaktibo kimikoak eta segurtasun arropa zuria. Oraindik zeruan eguzkirik ageri ez bada ere, izerdi patsetan blai zabaldu ditut begiak. Hasperen luze batek alde egin dit eztarri-zulotik, itolarria eta arnasestua izan ditut ondoren. Autoan, mutu, alboz albo eserita doazen kideetako inork ez du zirkinik ere egin izu erasoaldiari aurre egin diodan bitartean. Leku hartako bakardadea erabatekoa da.

Lasaitzea lortu dudanean, inguruan kateatu dut begirada. Auto eskas hura hondakin artean libre geratu den lurzorutik barrrena, boa astun baten pare, sigi-saga doan bitartean, telebisten muinoa, ordenagailuen tontorra, mugikorren mendixka eta horrelako ezin konta ahala zakar pilaketa ikusi ahal izan ditut. Muino bakoitza tresna mota bakoitzaren zabortegia da. Argi dago kudeaketa zorrotz bat duen biltegia dela.

Lau besterik ez gara amaierarik ez duen ozeano hura bahetzeko. Bart TEN01ekin izandako solasaldi laburrak ez dit gauza askorik argitzeko balio izan. Leku honetako arau garrantzitsuenak azaldu zizkidan eta baita gure lanaren xede nagusia ere: gizartearen ongizaterako baliagarri izan daitekeen informazio oro aurkitu, egituratu eta arduradunei pasatzea. Lan honetan lortutako errendimendua gure bizi baldintzekin erabat loturik dagoela ere aipatu zidan pasadaz, nahiz eta ez zehaztu zein den lotura garrantzitsu hori. TEN01ek ez zuen beharrik ikusi izan nezakeen galdera edo zalantzarik argitzeko, eta hasi bezain pronto amaitu zen leku hartan hezur-mamizko izaki batekin izan dudana elkarrizketa bakarra. Haren gorputz handi gihartsuaren itxura oldarkorrek ere ez ninduen alferrikako galderak egitera bultzatu. Ez nuen haren haserrea probatzeko inolako gogorik.

Antiseptiko usainak ezker sudur-zulotik mingainaren puntarainoko bidea egin du, nahiz eta ziur jakin inguruan ez dagoela horrelako sustantziarik. Lau urtez lanik egin gabe egon naiz. Eta buruak kontrakoa badio ere, ez naiz lehengo lanera itzuliko. Egoera berrira zenbat eta lehenago moldatu, hobe.

Egurrezko etxola txiki bat dagoen puntu batera iristean, auto kaskarra geratu eta nire hiru lankideak autotik jaitsi dira ni atzetik nautela. Etxolara gerturatu orduko, «WC» idatzirik duen ate estu bat ikusi dut parez pare eta ezker saihetsean, lau atexkaz osaturiko armairu luzea. Norberaren zenbakia adierazten duen metalezko plaka bat ageri da ate bakoitzean, baita atea itxirik mantentzeko balio duen pasadore soil bat ere. Atea ireki orduko, ondo tolesturiko buzo zuria, babes betaurrekoak, eskularruak, bizkar zorro txiki bat eta kantinplora koskor bat

ikusi ditut. Ozta-ozta lortu dut etxolatik apur bat aldentzea gosari guztia lur errearen gainean barreiatu aurretik.

—Ohituko zara —murmurikatu du ZIP65ek. Taldeak eskainiriko babes bakarra izan da.

Kantimploratik ur trago txiki bat hartu, hain ondo ezagutzen dudan lanerako arropa teknikoa jantzi eta taldea gehiago berantarazi gabe, nire lekua hartu dut laukotean. Komunaren kontrako aldera zuzendu gara eta han, pantaila batean, koordinatuz hornituriko zaborteziaren plano bat ikusi ahal izan dugu denok. Bakoitzari miaztea egokitu zaigun zonaldearen gainean gure zenbakia ikus daiteke. Betarik galdu gabe, bakoitza gure tontorrera abiatu gara. Ez dut zalantzarik: salpaeskumuturrekoak izango ditut zain.

Gizartearen gehiengoak bezalaxe, moda ikono bilakatu ziren arte, ez nuen sekula «salpa» hitzik entzun. Hasiera batean, ez nion arreta handiegirik jarri ezerezetik sortua zirudien izaki haren istorioari. Komunikabideek, gerora konturatu nintzen moduan gobernua lagun, informazio dosifikatua eskaintzeari ekin zioten. Ezarian-ezarian, inor gutxik ezagutzen zuen animalia bixi hark, bere habitat naturala utzi eta mundua kolonizatzeari ekin zion.

Sare sozialek zabaldu zuten lehenik arrain garden haren irudia: argazki bat, aipamen bat, izaki haren izateari buruzko deskripzio txiki bat... Dena zen hutsal eta naifa. Ezer serio edo arriskutsurik ez. Eta konturatzerako, sareen birtualtasunetik ihes egin eta azaltzen hasi zen politikarien diskurtsoetan, aktibista ekologisten leloetan, haurren bizkar zorroetan, gazteen telazko poltsetan edo kirolarien elastikoetan.

Niri ere poltsa eder bat oparitu zidaten salpa baten irudiarekin. Ironikoa iruditut zait hortaz gogoratzea, salpa-eskumuturrekoen tontor izugarri hartara gerturatzen ari naizen une honetantxe: samintasunez, garai batean, opariaren egileari, egun izenik ere ahoskatu nahi ez dudana gizatar doilor hari, lagun deitzen niola oroitu naiz, baita haren zitalkeriak eraman nauela nagoen egoera tamalgarrira ere.

Eta oroitzapen batek beste bat kateatu du. Neure burua lantokiko ordenagailuaren aurrean pare bat lankiderekin, Bruno eta Colekin seguruenik ere, nahiz eta ez nagoen oso ziur hortaz, bat-batean leku guztietan ikusten genuen ditxosozko arrain haren inguruko informazioa bilatzen. Ez genuen denbora handirik behar izan marmoka itxura zuen izaki lirdingatsu eta garden hura «Tunikatu» izeneko animalia talde bateko itsas espezie bat zela jakiteko. Arraintzat hartzen ez zen ornodunen aurrekaria omen zen, alajaina; fitoplanktonez elikatu eta asexualki ugaltzen omen zen espezie hermafrodita.

Baina, txundigarriena eta zalantzarik gabe, baliotsuena, itsasoa garbitzeko zuen ahalmena zen, CO2 kantitate handiak xurgatzeko gai baitzen. Nork ez zuen maitatuko horrelako izaki baliotsu bat? Nor ukatuko zen haren irudia gogorarazten zuen eskumuturreko sotil bat eramatera? Gardentasunaren izenean, ekologiaren lorian, mundu hobeago baten itxaropenean... izaki hura milaka pertsonen esperantza bereganatzeko gai izan zen.

Salparen irudiaren harira etorri zen eskumuturreko hura, Troiako zaldiaren modura, etsaia etxean sartu zuen trikimailua izan zen. Gobernuak proposatu eta inposatua. Modu burutsu, sofistikatu, makiavelikoan ia. Gizartearen, taldearen, ustezko hautu librea erabili baitzuen gizabanakoaren erabakitze eskubidea urratzeko. Ez zen gobernuak exijituriko zerbait izan, ez, herriak libre eta demokratikoki aukeratu, eskaturiko zerbait baizik. Gobernuak herriaren eskaera entzun eta asebate zuen, besterik ez, ezin berari ardurarik edo errurik egotzi beraz.

Oroitzapenetan murgildurik denbora gehiegi eman dut eta itolarria sentitzen hasi naiz. Ongi baino hobeto ezagutzen

ditut antsietatearen sintomak. Lehen lan egunerako, urrunegi joan naiz. Ingurura begiratu dudanean, bakarrik nagoela kon-turatu naiz, bestea, jada, egokitu zaien zabor muinora bidera-tuak eta batzuk iritsiak direla ikusi dut.

Pausoa bizkortu eta muinorainoko distantzia ahal bezain azkar murriztu nahian, urrats luzeak egin ditut. Bizpahiru mi-nutuan iritsi naiz milaka salpa-eskumuturreko zahar aurkitzen diren lekuraino. Oraindik eguna erabat argitu ez badu ere, ilunpe eta itzal artean bada ere, azaleraren hedadura bere oso-tasunean ikusi dut: egin beharreko lana uste baino neketsu eta zailagoa izango da. Nagikeriak minutu erdi bat baino ez dit iraun, ordea, lau urtez kartzela itogarri hartan egon ondoren, edozein aldaketa, txikiena ere, gogorrena ere, aurrerapauso bat izango baita, zulo beltzetik atera eta berriro ere, bizitzen hasteko aukera berri bat.

Eskumuturrekoen tontorra mugatzen hasi naiz: gertuen dudan ertzetik beste ertzeraino pauso handiak eman ditut, metro ingurukoak. Helmugara iritsi naizenean, oharkabean, ez-ker eskua izter parean egon beharko lukeen ustezko patrika ba-tera zuzendu dut, beti aldean eramaten nuen tableta atera nahian; eta eskuinak, berriz, bihotzaren gainean izan beharko lukeen beste patrika batean, boligrafo digitala bilatu du, alfe-rrik. Urdailean ziztada boteretsua sentitu dut.

Une txiki batez, neure burua inguratzen duen errealtate-tik abstraitu eta behinola izan nuen lanarekin jarraitzeko gai izan naiz. Lau urtez derrigorrean etendako errutinari natural-tasun miresgarritz heldu diot. Ez nuen inoiz imajinatuko lana-ren errutinari lotzeak halako mesederik ekarriko lidakeenik. Az-tertu beharreko eremua perimetratzea izaten zen beti lehenengo

lana. Bahetu beharrekoa mugatu, haren neurriak eta itxura eza-gutu, inoren gogoan baino existitzen ez zen lurralde hari mu-gak jartzeak ezezaguna ezagunagoa egiten laguntzen zidan. Itsaso etereo batean bizi zen izate ukiezin, ikusezin oro, neu-rrri zehatzen bidez lurrera ainguratzen nuen, errealitate ezagun batean iltzatuz, anonimotasunaren babesba ukatuz.

Bizkar-zorroaz oroitu eta eskuetan hartu dut, idazteko ba-liagarri gerta dakidakeen zerbait topatuko ote dudana esperan-tza txikia elikatzen dudana bitartean. Begirada azkar batek be-rehalakoan zapuztu ditu nire desira guztiak. Ez dut besterik aurkitu, oihalezko zenbait poltsa, kopetako linterna, egurrezko matxarda handi batzuk eta urez beteriko kantinplora bat.

Etsipena alde batera utzi eta aztertu beharreko azalera bu-ruz kalkulatu eta antolatuko dudala erabaki dut. Sistemari eta nire lankideei ere erakutsiko diet gai ez ezik lan honetarako ego-kia ere banaizela. Leku honetako baldintzak eta arauak azale-tik baino ezagutzen ez ditudan arren, badakit gizartea zuzen-tzen dutenetatik oso ezberdinak ez direla izango eta, beraz, produkzioa ezinbestekoa izango dela. Sistemak eta gizarteak produkzio maila egokia mantentzen duena saritzen du eta nahikoa nazkaturik nago galtzaileen taldean egon beharraz. Nire egoera aldatuko badut, ahalegina nik egin behar dudala badakit.

Geroz eta indar handiagoz zabaltzen ari diren eguzki izpien indarra barneratu eta metroko luzera izango duen lauki-sarea mugatzeko erabil ditzakedan harriak bilatzen hasi naiz zalu.